

ZUMAI A / Liburutegia Forondatik Alondegira aldatzea erabaki du Kultura Foroak

Martxoan hasiko da Udala Alondegia eraberritzen; eraikineko igogailua hartuta herriko goialdera iritsi ahalko da

ONINTZA LETE. ZUMAI A

Urte eta erdi barru zumaiarrek herriko erdigunean izango dute liburutegia. Martxoan Alondegia eraberritzen hasiko da Udala, eta Kultur Foroak liburutegia bertan kokatzea erabaki du. Udaleko Hirigintza batzordeburu Andoni Etxanizen esanetan, «garrantzitsua da liburutegia bezalako zerbitzu bat herritarrentzat eskuragarri egotea, eta Foronda Kultur Etxea urrun gelditzen da askorentzat».

Eraikina bera berritzeaz gain, igogailu bat jarriko du Udalak Erribera kaletik elizaren atzealdean dagoen Mari kalera. «Alondegi barruko igogailua bera erabiliko dugu herriko goiko parteko bizilagunei zerbitzu hau eskaintzeko», Etxanizek adierazi duenez.

Kultur Foroan herriko kultur eragileek, Udaleko kultur teknikariak eta Udaleko Kultura batzordeko zinegotziek hartzen dute parte. Azken hilabeteetan Alondegi berriak zein ezaugarri bete behar dituen zehazten aritu dira; lan horiek amaituta, martxoan eraberritze lanei ekingo die Udalak.

Erabiltzaileek «lehentasuna»

Alondegia eraberritu eta Erribera kaletik Mari kalera igotzeko igogailuaren proiektua aurreko agintaldikoa da. Hala ere, proiektuan aldaketak egin ditu Udal Gobernuak, «proiektu hura geure ez genuelako sentitzen eta ez zuelako Kultur Foroaren babesik lortu». Esaterako, helduentzako nahiz haurrentzako eta gazteentzako liburutegia bertan kokatzea da proiektuko ardatz nagusia, eta aurreko proiektuak ez zuen halakorik aurreikusten.

Proiektu hau lantzeko unean Kultur Foroa bildu du Udalak: «Erabiltzaileen beharren arabera eraikina eta zerbitzuak eskaintzea da gure asmoa. Horregatik, zenbait hilabete hartu ditu foroak eraikinari zer erabilera eman adosteko».

Igogailuak bi funtzio ditu

Alondegiko igogailuak bi funtzio beteko ditu: alde batetik, eraikin barruko irisgarritasuna bermatuko du eta, bestetik, herriko beheko partea goikoarekin lotuko du.

Igogailua eraikinaren baitan kokatuko da. Erribera kalean dagoen Alondegira sartu beharko da igogailua hartzeko. Alondegiak bi sarrera izango ditu, eta horietako batetatik sartuta hartuko da igogailua.

Egunez edozeinek erabili ahal izango du igogailua, baina «ordutegi normaletik kanpoko erabilera nolabait arautu egingo dugu; ez du erabilera publikoa izango». Udalaren helburua, igogailua herriko goiko parteko bizilagunentzat 24 orduz martxan edukitzea da, «alde zaharrera iristeko dauden aldapak eta eskailerak saihestu ditzaten bizilagunek, batik bat urteetan aurrera doazenek». Horretarako giltzak edo txartelak banatzea aztertzen ari da Udala, «baina oraindik ez dago ezer erabakita».

Ia 3.000.000 euroko kostua

Lanak lehiaketa publiko bidez esleituko ditu Udalak, eta proposamenak aurkezteko epea urtarrilaren 12an amaituko da. Lanak 18 hilabetetan egin beharko dira eta ia 3.000.000 euroko kostua izango dute.

Eraikina oso-osorik berrituko du Udalak, eta oraingoak baino altuera gehiago izango du berriak, teilatupeko solairua «apur bat altxatu» egingo dutelako. Gainera, azken solairu honek beirate handi bat izango du.

Jasotako proposamenak aztertu eta «otsail amaierarako erabakiren bat hartua» izango dutela uste du Hirigintza batzordeburuak. Hala, «martxoaren hasieran lanak hasteko moduan» izango dira.

Aukera berriak Forondarentzat

Liburutegia lekuz aldatzen dutenean, hutsune handia geldituko da Foronda Kultur Etxean. Hutsune hori betetzeko «hainbat ideia» du buruan Udalak, baina horiek «landu» egin beharko dira: «Zeregin horretan ere Kultura Foroak lagun dezake».

Besteak beste, aretoren bat «hileta zibilak egiteko erabil daiteke etorkizunean». Etxanizek adierazi duenez, gero eta jende gehiagok eskatzen duen zerbitzua da eta «Foronda horretarako aproposa izan daiteke». Erabilera posible honekin lotuta, ezkontza zibilak ere Forondan egiten direla gogorarazi du.

Kultur Etxea jarduera berriak hartzeko eta eskaintzeko moduan izango da Alondegia eraberritzen dutenean, baina Hirigintza Saileko batzordeburua arlo horretatik haratago mintzatu da: Forondak «hainbat muga du, irisgarritasuna eta kokapena kontuan hartzen badira», eta horregatik, «publiko zabalarentzat baino egokiagoa da talde zehatz batzuentzat, euren jarduerak lasai gara ditzaten bertan».

Horretaz gain, Foronda erabiltzaileen beharretara moldatu behar dela irizten dio Etxanizek, eta zentzu horretan, ordutegia «malgutasun gehiagorekin» erabili behar dela uste du.